




AURKEZPENA

TANTAK ozeanoak kontserbatzen eta garapen iraunkorren diharduen GKEa gara. Itsas biologia, ozeanografia, ikerketa, gorputz-hezkuntza eta ingurumen-dibulgazioaren arloetako profesionalen eskutik sortua. Gure itsasoak zaintzeko, bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko eta gure planeta eta herritarren proaktibitatea hobetzeko ekintzak gauzatzea dugu helburu.

Eskolako ekintzak itsas biologoek, ingurumen hezkuntzako dibulgatzaileek eta hezitzaileek jorratzen ditugu.

ESKOLA EKINTZAK

Hurrengo atalean, adin ezberdineko haurrentzako tailerrak aurkezten ditugu. Bertan tailer bakoitza zertan datzan, zein adinerako zuzenduta dagoen eta iraupena eta prezioa zenbatekoa den ere azaltzen dugu.

ITSASOKO 5 ZENTZUMENAK

AZALPENA: bost zentzumenen bidez itsas ingurunea hurbiltzea da txikientzako lan proposamen hau. Ikusmenarekin gure itsasoetako biztanleak deskubrituko ditugu, guk grabatutako bideo originalen bidez. Eskuekin itsasoko biztanleen testurak ukituko ditugu. Entzumenarekin animaliak itsaso azpian nola komunikatzen diren bereiztuko dugu. Eta, azkenik, usaindu eta dastatu egingo ditugu itsasoko organismoak. Bost zentzumenei esker, itsasoarekin eta bertako biztanleekin ohituko gara. Izan ere, itsasoa zaindu ahal izateko, lehenik eta behin ezagutu eta ulertu behar dugu denok garela Planeta Urdinaren parte.

ADINA HH2-tik LH4. mailara bitarteko haurrei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.



ITSAS-ARTEA!

AZALPENA: etxean edota eskolan sortzen ditugun zaborren kaltea ulertarazteko tailerra. Gure kaleetan ditugun birziklapen edukiontzi nagusiak aurkeztuko ditugu, bertara bota behar ditugun hondakinak aipatuz. Ondoren, etxe hondakinak murrizteko eta berrerabiltzeko artelanak egingo ditugu. Ikasle bakoitzak nahi dituen materialak erabiliko ditu gure planeta zaintzeko mezu ezberdinak adieraziz. Azkenik erakusketa bat egingo dugu eskulan horiek aurkezteko, eskola osoak ikus ditzan, eta erabilitako zabor kopurua jakinarazteko. Horrela, ikasle guztiek ikusi ahalko dute sortzen ditugun hondakinen kaltea, jarrera aldaketa sustatzeko: murriztu, berrerabili eta birziklatu!

ADINA: HH3-tik LH4. mailara bitarteko haurrei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.




STOP ZABORRAK

AZALPENA: gure eguneroko bizitzan sortzen ditugun zaborren arazoa ulertarazteko tailerra. Herriko kaleetan ditugun birziklapen edukiontzi nagusiak aurkeztuko ditugu, bertara bota behar ditugun hondakinak jokoen bidez aztertuz. Joko ezberdinak izango ditugu modu dibertigarri batean barneratzeko zein zabor doan edukiontzi bakoitzean: memoria, lokotxak, arrantza puzzlea, etab. Horrelaxe, ikasleek era jostagarrian barneratuko dute modu egokian birziklatzearen garrantzia.

ADINA: HH2-tik LH6. mailara bitarteko ikasleei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.



HONDARTZAKO EKOSISTEMA

AZALPENA: gure kostaldeko hondartza batera joango gara, bertoko ekosistema ezagutzeko. Itsas beheara dagoenean arroketako putzuetan bizi diren bizidunak ezagutuko ditugu, haien funtzioa eta garrantzia ulertaraziz. Gainera, hondartzan topa ditzakegun eskeleto ezberdinak ikusi eta ukituko ditugu: bale hezurra, korala, marrazoen arraultza, etab. Eta behin itsas ekosistemaren garrantzia eta ahulezia ulertuta, hondartza garbituko dugu. Topatutako zaborren bilketa eta kontaketa eginez. Zaborren arazo latzari buruzko konponbideak aurkeztuz.

ADINA: HH4-tik Batxilergoko mailara bitarteko ikasleei zuzendua.

IRAUPENA: 3 ordu.

PREZIOA: 300€ (prezioan ez dago autobus zerbitzua sartuta).

OHARRA: ekintza hobeto garatzeko, kontuan hartu beharko da mareen ordutegia.



ITSAS BIOANIZTASUNA ETA KONTSERBAZIOA

AZALPENA: hitzaldi dinamiko, interaktibo eta didaktikoa. Gure planetako fenomeno ozeanografikoak azalduko ditugu, bai eta Kantauri itsasoko biodibertsitate aberatsa ere, guk grabatutako irudi originalen bitartez. Eta itsasoek gaur egun jasaten dituzten inpaktuak ezagutaraziko ditugu, gure esku dauden konponbideak azalduz ere, mundu hau, leku hobea izan dadin.

Adin desberdinetara egokitua, itsas ingurunea parte-hartzaileei hurbiltzeko.

ADINA: LH1-etik Batxilergoko mailara bitarteko ikasleei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.



ARGI ETA GARBI BIRZIKLATU!

AZALPENA: zaborren murrizketa sustatzeko, kudeaketa hobetzeko eta birziklapen edukiontziak egoki erabiltzen ikasteko mahai joko dibertigarria. Guk sorturiko joko kooperatiboa, non klase guztiak irabazi edo galdu egiten duen.

Taldetan banatzen dira ikasleak, eta talde bakoitzak edukiontzi bat eta bere hondakina ditu. Helburua, hondakina edukiontzira heltzea da. Eta horretarako, taldeak birziklapenari buruzko galderak zuzen erantzun beharko ditu. Horrez gain, zaborren/birziklapenaren inguruan gaur egungo onurak eta hondamendiak ere landuko ditugu modu entretenigarri eta dinamiko batean.

ADINA: LH1etik DBH4 mailara bitarteko ikasleei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.



KLIMATIKUM

AZALPENA: aldaketa klimatikoari buruzko talde-joko didaktikoa. Guk sortutako jokia, ikasleek frogaz ezberdinak egin ditzaten ikasten duten bitartean.

Taldeetan banatzen dira ikasleak, eta talde bakoitzak oztopoak gainditu egin beharko ditu. Joko modua, taldearen arabera moldatuko dugu:

- Hurrengo frogak gainditu behar ditu: galderak erantzun, mimika, tabu, marraztu, egia-gezurra eta zortea.
- Galderak zuzen erantzun behar ditu kutsadura moten arabera: argazkien bitartez.
- Galderak zuzen erantzun behar ditu zaborren edukiontzien arabera: argazkien bitartez.

Erantzunak gaindituz, talde bakoitza aurrera egiten doa joko-taulan eta altxor bereziak lortuz doa. Helburua, talde bakoitzak bere altxorak lortzea da. Eta horretarako, partaideak aldaketa klimatikoari buruzko kontzeptuak ikasten joango dira modu dibertigarri batean.

Gainera, planetaren zaintzaren inguruan gaur egungo arazoak eta konponbideak ere landuko ditugu jolasaren bitartez.

ADINA: LH1tik 2.Batzilergoko mailara bitarteko ikasleei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.



IZARRAK IKUSTEKO KUTSADURAREN KONTRA JO

AZALPENA: kutsadura mota ezberdinei buruzko tailer didaktikoa. Kutsadura nagusiei buruz mintzatzen gara, adibide praktikoak plazaratuz eta guk sorturiko bideoak erakutsiz.

Kutsadura mota ezberdineko txartelak banatzen dizkiegu eta zuzen erantzuten kontzeptuak ikasten joango dira. Kutsadura mota ezberdinen ginetik, argi kutsadura indartuko da jolasaren bitartez: zein eragin du animalengan? Gizakiongan? Mugikor eta pantailek gudan duten eragina, etab. Zeruak zelan behatu ditzakegun, zelan ikertzen diren edota zeruan suertatzen diren fenomenoak azalduz.

ADINA: DBH1tik 2.Batxilergoko mailara bitarteko ikasleei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.



ROL JOKOA: GURE ZABORRAK, GURE KALTEA

AZALPENA: zaborren arazoa ulertarazteko, murrizketa sustatzeko eta kudeaketa hobetzeko rol jokoa. Guk sortutakoa, non klasea taldeetan banatzen dugun eta talde bakoitzari pertsonaia bat tokatzen zaion. Klase osoari egoera zehatz bat aurkeztuz.

Pertsonaia bakoitzak bere berezitasunak eta ezaugarriak ditu: alkateak, ekologistak, nekazari-abeltzainak, etab izanda. Pertsonaia bakoitzak egoera hobetzeko proposamen ezberdinak pentsatu eta aurkeztu beharko ditu. Horrela, eztabaida suertatuko da ikasleen artean eta guztien artean erabaki beharko dituzte aurrera eramango dituzten konponbideak.

Talde lana jorratzeko, gelakideen aurrean hitz egiteko eta herri inplikazioa eta enpatia sustatzeko jokoa da.

ADINA: DBH1-etik Batxilergora bitarteko ikasleei zuzendua.

IRAUPENA: ordu eta erdi.

PREZIOA: 150€ gela bakoitzeko.



OHARRAK

- Ekintza guztiak gelaka egiten dira. Gela bakoitzeko, gehienez jota, Hezkuntza Sailak ipintzen dituen ikasle kopuruak izango ditugu kontuan:
 - HH lehen zikloa: 18 ikasle
 - HH bigarren zikloa: 23 ikasle
 - LH eta DBH: 25 ikasle
 - Batxilergoa: 30 ikasle
- Behar izatekotan, ekintzen iraupena murriztu daiteke, ikastetxeko ordutegira egokituz.
- Ekintza guztiak euskaraz edota erdaraz izan daitezke.
- Behar bereziko ikasleekin egiteko proposak ere badira, haien beharretara moldatzen ditugulako.

EKINTZA BANAKETA

	HAUR HEZK.				LEHEN HEZK.						DBH				BATX.	
	2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	1	2
Itsasoko 5 zentzumenak																
Itsas-arteak																
Stop zaborrak																
Hondartzako ekosistema																
Itsas bioaniztasuna eta kontserbazioa																
Argi eta Garbi birziklatu!																
Klimatikum																
Izarrak ikusteko kutsaduraren kontra jo																
Rol Jokoa: gure zaborrak, gure kaltea																

KONTAKTUA

Web orria: <https://tantak.eu/>

Kontaktuak:

ana@tantak.eu
Telf: 628078750

iratxe@tantak.eu
Telf: 618275665

Sare sozialak (ikonoetan bertan klikatu):



Irailak 2024